

iruñea ere debekaturik

Ni neu ere, horetakoa nauze. Ni neu ere, Iruñea sartu ez ziren "anti-Euzkadi" horetakoa nauze. Ni neu ere, beste chun mila bezala, kontrolatua izan nintzen larunbatean, desbideratua, uxatua... ukatua! "Lo siento, zeño: no puede ir a Pamploña...". Eta Mendibil ondoko zegoen barreratik, atzera; eta Gares eta Lizarratik, etxera...! Bai, jauna! Autonomía. "Euzko Jaurriariza", eta guzti: "a-lo-lo".

Gares-ko bazkaldegietan eta tabernetan, ezindurik, hiztegi ofizialetan aurkitzen ez diren hitz bortiztatuak eta birauak ezin ugariago, gazte-mordoak nazkatutik: "Ya desde esta mañana era imposible subir a Pamplona, incluso para los vecinos de Puente La Reina".

Oraindik ere denon oroitzepean zuden Iparraldeko mugako "operación filtré" delakoak, Garaikoa eta Itxaso-ko bi Iparraldearen heriotza aurreko astean gertatu zirela baitzen. Baina "operación filtré" horietan, igandean "operación filtré" ezin hertsiagoa erantsi zaio. Eta ekuzazio politiko hau eskaini dugu jendarmek eta goardazibiek: operación filtré+ operación filtro= Autonomía (!).

Eta, beldurrez eta ikarar oratua, igandea argitu da. Eta argitu ondoko, lasterketak eta kolpeak hasi dira Iruñean; eta, berririk ere, frankismoaren garaian bezalaxe, abertzaleak zafrajak eta zaurituak izan dira "Aberrri Egun"ean. Iparraldeko Nafarroan, berriz, Amikuzeko hiriburua apaletan, behinola Oihe-narte nafarrek jakintsuaren bizilekua izandako Donapaleun, beste 3.000 abertzale biltzen ziren; oraindik ere ezabat tristaturik eta hunkiturik, festa egiteko gutziz gogobetaturik. Arruiz eta Olhagarai gazteen azken garaia oraindik ere entzungarri balitz bezalaxe! Lehenengo bi hilak Iparraldean; gertakari hitza, bortitza, azkarra; baina ez Euskal Herriaren hil-dei kutsukoa, halere, bere gogortasunean.

Eta eguerdian orduko, Donostian eta Gasteizen herraz eta suminduraz sortzen ziren manifestazioen berria zabalitzen hasi zen; zaurituak zeudela Gasteizen ere; Gipuzkoako Diputazioan manifestariak sartu, eta Españañako bandera urratu ondoren. ETA-ren aldeko pankarta

handi bat jarria zutela... Aberri-Eguna bortitza zinez aurienagoa. Berantegi bazen ere, ezker abertzalea osatzen duten bi indar nagusiak elkarturik agertzen ziren zampaketa-ordenan. Baina, besteak?

Besteak, PNV-koak zehazkiago, festetan, bazkaritan, eta txokoladatan, ari ziren. Bai jaunak! Desmobilizazioa sinetsi ezinezko punturaino eramanda, aurtzen PNV-ak ez baitu kale-manifestaziorik egin. Lehenengo aldir!

Oraindik ere Arruiz eta Olhagarai-ren gorputzak epel zeudelarik; oraindik ere Euskal Herria barrera mogitza gelaeraten dzikigituen "filtré" eta "filtro"ak hor daudelarik; oraindik ere "transferencia" bedeinkatu horiek ez datozelarik (ezta gure herriak gaitzetsi duen Konstituzio horren barrukoak ere); oraindik ere euskararen kontrako kolpeak, Madrilleitik eta "Euzko" zera horretatik batera, gelditu ez direlarik; oraindik ere "incuestionable" omen ziren "Concierto Económico" horiek estratosferan daudelarik; oraindik ere presoak garteletan daudelarik, eta deserrituak deserriari, satorrak bezala bizi; oraindik; PNV-ak irriz, oiuhuz eta txoko-

latez, ospatu du Aberri-Eguna; Donapaleuko, eta Iruñeko "Aberrri Eguna"z, Nafarroa-ko "Aberrri Eguna"z, hobeki, entzungero eginek. Urriaren 28 madarikatu hartan hasi zen zikloa hetsia da, beraz; eta PNV-a etsaieren banda pasa da.

Baina, badantzut: "¿Por qué no sé dedicará ese fracasado a lo suyo?" Bestela esanda: "¿Por qué no se dedicará a los sufijos y esas mandangans?" Edo batek lehen-goan aurpegi bota zizkidan hitzez: "¿Por qué no te dedicas a lo tuyo?" "EGIN"en agertu zen elkarriketan, esan zidanez, azkeneko ohar "politikoak" sutu omen zuten. Alegia: "El Estado español persiguen hoy, como antes, la desaparición del pueblo vasco como identidad colectiva distinta". Alegia: nik gramatikaz hitz egiteko eskubidea dut; baina erizpide politikoak botatzeko, ez. Eta orain, berriro ere, "me estoy saliendo de lo mío; es decir, de los sufijos y esas mandangans".

Eta garbiki mintzatuko naiz, egoera honetan garbiki mintzatu beharra dagoelako.

Igande honetan PNV-ak eman duen ikuskaria lotsagarria da,

PNV-a "collabo"en partidua bihurtu da; eta abertzale den jendea barru horretan zer ari den ez da ulertzen. Areago: Euskal Herriaren askatasunerako bidean. PNV bihurtu da oztopo nagusia; orain dela ehun urte, Arana-Goirik xuxen ikusi zuenez, "Partido Carlista" hura Euskal Herriarentzako oztopo nagusia zen bezala. Gauzak honetaz gero, PNV-aren. Kontra eta gainetik eraikiko da Euskal Herri askatua, ala ez da inoz eraikiko.

Ez dakit nik zer den "lo mío". Abertzalea naizenez, herriak esango dit zertan eman dezakeden laguntzarik handiena. Baina enc helburua ez dira sufijoak "eta gainerako mandanga" horiek. Euskal Herriaren Askatasuna baizik. Eta ohore zait, hain zuzen, gramatikagintzat at egin egin dudana apurra.

Areago: ene gramatikagintza guztiak ez du ezertariko balio halako batez Euskal Herria Euskaraz mintzatuko ez bada. Baina ezta ere, eta hau argi eta garbi esan nahi dut berritoe, Euskal Herri hori, euskaraz bai, baina jauntxo-klase baten morroi egongo bada. Hots, PNV-ak, gero eta garbiago denez, jauntxo-klase horren ordezkaria da; eta horregatik, eta ez besterengatik, nahi gaituzte ikusi gramatikagintza "husean".

Baina alferrik ari zarete, niri dagokidenez bederen: abertzale sozialistek zuen negozioez, zuen inbiliariez, zuen minatze eta fabrikez ere hitz egin nahi baitugu; eta ez hitz egin bakarrik.

PNV-ak erabaki baldin badu hemengo UCD izatea, abertzale mailako sotsuengatik ere galduko ditu; eta gure Salaketa oso baizik ez du hemendik aurrera jasoko. Atzo Donostiako kaleetan entzun zituzten "PNV-traidor" oiuhuk, bere sentidu guztia hartu baitu "quising" eta "collabo"en paperak horren nabarmenkiro onartzen direnean.

Orain dela hogei urte geroztik somatzen genuen, eta ez genuen sinetsi nahi. Huaxe da ene adineko askoren trajeria. Sinetsi ezin!

Orain sinetsi egin dugu. Eta badakigu: Euskadik ez du bere burua aitxako zuen kontra eta zuen gainetik baizik.

TXILLARDEGI



colaboración

aberri eguna en pamplona

Un viento gélido, de muerte, ha soplado sobre Navarra desde el Viernes Santo, anunciando procazmente desde TVE, a pesar de ser día santo. A pesar de ser primavera.

Lucía el sol, pero era un sol mortuino, de larga esperanza es cierto, pero, por contraste, aún hacía más frío el ambiente. Flores recién estrenadas, yemas fecundas y pujantes se quemaban al duro embate del viento siberiano que, pertinaz, nos azotaba sin piedad.

La mañana de Pascua salió igual. Peor que otros días sí cabe. Sol y frío, esperanza y temor que paraliza los huesos.

La operación la habían preparado con precisión, con premeditación y alevosía. A pesar de que por ahí, en los otros territorios históricos, sabéis mucho de tanquetas y helicópteros, tendríais que haber estado aquí, en Navarra, para sentir con viveza lo que es una ocupación militar. De toda Navarra.

De guerra se trató; de guerra calculada. Lo habían advertido personajes tan curiosos, por no decir grotescos, como el señor Tarrañadas. No lo creímos, pero era cierto. Esto ha sido una especie de ensayo general.

grite. ¡Ahí tenéis la Justicia, ahí está la democracia!

¿Poco servicio os habéis hecho mutuamente Suárez y Del Burgo!

Navarra no se rinde, la tendréis que ocupar permanentemente, la tendréis que esquilmar hasta las heces en su Fuero y en su honor, pero no la vaciaréis de sí misma, ni la dividiréis de por medio.

Y aprended vascos de una vez, aprended navarros. ¿Quién holló vuestro suelo, quién os arrebató antes y ahora vuestra independencia, quién os seccionó de los hermanos, quién os tritó, quién os prostituyó con el extraño, quién os roba y os robó? Un sólo ejército, un sólo invasor, un sólo extranjero, un sólo usurero, un sólo ladrón, un sólo traficante.

Y a trabajar unidos de una vez, que la lucha va a ser larga y el enemigo altanero y sin escrúpulos.

En el Estado español no habrá ya paz mientras no se solucione en justicia la unidad territorial del País Vasco. Nos queréis traer la guerra, pero si así lo hacéis, la tendréis que padecer en vuestra misma entraña.

Navarra, Euskal-Herria entera, humilladas, no se rinden.

Jesús LEZAUN

"euskal herrian euskaraz" elkarteari

Benetan, larria euskararen egoera. Benetan, ez bagara mugitzen, gureak egin du. Herri zahar

honek, hainbat eta hainbat arazo asumitu dituen herri honek, noiz asumituko ote du euskarara ere? Ala betiko ukatuko ote du?

"Euskal Herriaren Euskaraz" izenarekin taldea sortu omen da gure herria, euskararen alde. Nik dakidenez, bere aurkezpena egin zuen, Durango edo. Geroztik, bere izena entzun izan du: Gipuzkoako ekintza baten bat zala eta; eraskinak; Iruñeko manifestaldian ere, bere izena agertu zen...

Baina, egia esateko, kezka bat daukat: porrot egin ote du mugimendu horrek? Nonbait eta nolabait bizi bazara, zure berri zehatzak jaso nahi ditut. Nonbait bazarete, zuei, hainbat itzaropen eman didan talde horri, bizpahiru galdera:

1.- Jaio berria, haur guztiek poliki poliki ikasten dute zuzik ibiltzen. Baina, badira sei hilabete sortu zinetela. Noiz iritsi behar duzue herrietara? Edo, zuen mugimendu hori "batzuen eta batzuen-tzat" ote? Berritoe, beste talde txo bat, "elite" jende batendako? Ba horrela bada, kaka zaharra. Herri osoak asumitu beharko du euskaraz; bizpahiruk ez duzue, ez dugu salbatuko.

2.- Ez ahal zen ekintza talde bat?

3.- Ze koino egin behar da talde horren berri izateko, eta talde horretan sartzeko?

4.- Biltzen zarete? Edo, gehiegi biltzen zarete? Edo, bildu bakarrik

egiten zarete?

5.- Euskal Herriaren, euskararen alde ari diren talde kultural guztien koordinazioan sinesten duzue?

6.- Egia da talde politiko konkeritu batekoak zarete? Ba, esan didatena egia bada, has, zaitzete etxetik.

Iruñerako bidean, Aberri Eguna nindoalax, itzularazi naute, harmaz, bortoxaz. Izugarriko nahigabea, ezina, inpotentzia. Nahi eta ezin.

Eta euskaraz oroitut naiz; bera, egunoro, hortan baitago; bizi nahi eta ezin.

Sinesten dut udaberria; sinetsi nahi dut euskararen udaberria.

Loretan dagoen Nafarroako haran baten aurrean, oiuh hauxe egiten dut: "Euskal Herria euskaraz elkartea", jalgi hadi plazara...

EUSKADIKO TXOKO BATETIK gure hiriburuaren izenaz

"Aberri eguna" gainean dugu, eta honako eta harako deiak ugalduta dira: "Iruñera" (LKI); "Iruñea" (KAS); "Iruinea" (Herri Batasuna).

Hots, Euskaltzaindik milaka zabaldu dituen "Izendegietan", hauek aurkitzen ditugu: "Iruñera", "Iruñea", "Iruñean".

Hirurak gaizki, beraz! (ikus 93, 123, 134, 145, eta abar).

semaforo gorria

Lehen Aberri Egun autonomikoa ikusi berri dugu. Zenaib tokian ez ziren erraz ezer ikusterik, baina hau ere ikusi dugu. "Toma autonomia", esaten zion mariozko batek azpian zuenari egundoko kulatadak ematen zizkiola. Hemen dugu bai autonomia. Ederki kargaturik etorri zaigu. Izan dadila ondo etorria eta hobeki joana. Zenenak kapara bezala jotzen omen zuten gainera ikurrinera ere. Ikurrina ia sinbola nazionala zela uste genuen, baina dirudienez demokartzian ere nazio desberdin asko dago. Ez al du, ordea, demokartzian horixe eskatzen, alegia, zer desberdinarik egotea, pluralismoa etab? Zukuraren nauak. Zerbaiz izango zelakoan eta kea tsiminitik joan beharreen, norbere begietara zuzen. Urrezko arraultza izango zelakoen, betiko arraultze ustela eta gainera oihoa saldatara eta oilarra zintzilik.

Nafarroako PNVek ere edukazioa zer den ikasiko zuten. Aberri eguna mantso-mantso suspentiu eta gero kobratu egin behar. Lehenago ere ohihurtik gaude horretara, baina badirudi eskarmenturako karga handiak behar direla. Daraganen marxan hornituko gara. Eskerrak Realak record bat hausti duela eta orain datorrela datorrena. Liga irabazten badugu, Aberri Eguna abertal kompentzeko aina aterako dugu. Eta zer arraiol! Hurrengo Aberri Eguna Santiago Bernabeu estadioan egingo dugu eta datozela golak sartzerara. Realeko mutilok, beraz, badaizue egundoko erantzurkizun nazionala daramazuela bizkarrean. Aurtin irabazten ez badazue, geuk hautsiko dizkiegu bizkarrak. Ilusioak egin erazi eta azkenean hitza? Ez. Pentsa aurreko porteria guztiak danborrak direla eta jo bildur gabe.

Donapaleun ere egundoko Aberri Eguna egin omen dute. Laster Frantziako generalak hilotzetatik jaikitzen hasiko dira eta bizkarrak engrasatu, mutilak. Goitik eta behetik zerbaiz egin behar dugu oraintxe. Eta ezer egiten ez badugu ere, nori axola dio? Egurrean behintzat ez da krisirik nabari eta semaforo gorriak serberia bat jartzen pentsatu du. Lana maite duzuek etor bildur gabe.

Xabier AMURIZA

Okerrena, ordea, Euskaltzaindiaren oharra da: "Bigarrenean Iruñea aurkitzen da, deklamate ikuspegi garrantzitsuen eta gaizkien erabilian" (122). Alferrikako oharra, berriz ere.

Erraza litzazteke, ordea, kartelak argitara aurretik, milaka zabaldu diren dokumentuak begiratzea. Hurrengoan agian?

TX.

¡el colmo, la última del pce!

El día 17 fue detenido en Durango Kepa Olabarria, hermano de Goyo, y estaba siendo torturado, según el PCE, por las FOP. El PCE protesta y amenaza, ojo, sólo amenaza, con movilizarse si Kepa no es puesto en libertad. Hasta aquí todo es normal, si no fuera porque el PCE sólo se moviliza cuando es ilegalmente detenido o secuestrado uno o una de sus militantes; los demás no importamos para nada, cuando son cientos en el Estado español y más en Euskadi los revolucionarios-as presos, en el exilio, torturados o incluso muertos en las calles. Ante esto el PCE no dice nada y encima nos llama terroristas, desestabilizadores de la democracia. Esta es la política anticapitalista y de clase del PCE.

JOSERRA (E.G.G.)